

Benetan garrantzia duen hori komunikatzeko laguntza.

Lehenengo edizioa: hasitago_ren **Baterago** proiektua



EDUKIA

Sarrera _____ **01**


Paketeak _____ **02**

Egutegia _____ **04**

Betekizunak eta baldintzak _____ **06**

Ohiko galderak _____ **07**

hasitago_ri buruzko informazioa _ **09**



SARRERA

Zer da Baterago?

Baterago, horra gure ekarpena.

Gure proiekturik pertsonalena.

hasitago_ren izaera du sorburu, komunikazioa ulertzeko era hori, xede duena balioa ematea, elkartzea eta laguntzea.

Halaxe jartzen dugu gure esperientzia premia handiena dutenen zerbitzura.

hasitago_, zurekin.

Proiektu bakoitzean, bezero bakoitzarekin.

Berriekin, betikoekin.

Eta orain ere zuekin, elkarrekin.

Baterago elkarrekin aurrera egitea delako.

Izan ere, batera joanez beti iristen gara harago.

Ziur gaude guztiek lagundu dezakegula zerbaitetan, nola edo hala. Guk, adibidez, gure ezaguera jarriko dugu benetan axola duena zaintzen duten horien zerbitzura, 0€-an.

Baterago asmo honekin sortu da: gure konpromiso sozialean urrats bat harago joatea. Gipuzkoa arlo sozialean, hezkuntzan, osasungintzan, kulturen edo ingurumen arloan eraldatzen ari diren elkarrekin lagundu nahi diegu, komunikazio-zerbitzu profesionala debalde eskainita. Horretarako, hainbat pack proposatzen ditugu, komunikazio-beharren arabera.

Ondo dakigu elkarte askoren egitekoa funtsezkoa dela, baina ez dutela bitartekorik edo ezagutzarik lan hori guztia ongi komunikatu eta jende gehiagorengana iristeko. Proiektu honek egiazko komunikazio-behar hori betetzea du xede, soluzioak eskainita.

PAKETEAK

Istorio adina pack dauzkagu.

Aukeratu zure elkartearen egungo beharretara hobekien egokitzen dena. Bost zerbitzu-pakete diseinatu ditugu, heldutasun maila, baliabide eta komunikazio-helburu desberdinetakoak. Askotariko beharrak badituzu, ez egin zalantzarik, eta eman izena pakete batean baino gehiagotan.

Garrantzitsua:
Gogoratu izena emateko aldia bukatu bada, ezin izango duzula hautatutako packa aldatu.

I PACK

Eraiki zure marka

Hastapenetan bazaude edo irudia berritu behar baduzu, lagunduko dizugu logoa eta ikusizko nortasuna estreinatzen. Bidea hasi besterik egin ez duten elkarteentzat, edo irudia berritu nahi dutenentzat. Pakete honek barne hartzen du logotipo adierazgarri bat sortzea, eta marka eskuliburu bat ere bai, non ezartzen baitira oinarri bisual eta komunikatibo jakin batzuk, material guztien arteko koherentzia zaintzeko.

Logotipoa

Zure elkartearen ikusizko sinbolo bereizgarria da, zure elkartearen nortasunaren indargarria. Ezaguterraza eta helburuaren adierazle izan behar da.

Marka-eskuliburua

Elkartearen nortasun bisual eta komunikatiboa zehazten duen agiria da, material guztien arteko koherentziaren bermea.

II PACK

Jarri ahotsa zure markari

Oraindik ez duzu zehaztu zure markaren nortasuna? Forma ematen diegu zuen izaerari eta munduaren aurrean agertzeko moduari. Nor diren, jendaurrean nola agertuko diren eta zer-nola komunikatuko diren argi zehaztu nahi duten elkarteentzat. Pakete honek barne hartzen du markaren kontakizun bat sortzea, xedea eta nortasuna hitzetan jartzen dituen, eta marka-eskuliburu bat ere bai, non ezartzen baitira oinarri bisual eta komunikatibo jakin batzuk, material guztien arteko koherentzia zaintzeko.

Marka-eskuliburua

Elkartearen nortasun bisual eta komunikatiboa zehazten duen agiria da, material guztien arteko koherentziaren bermea.

Markaren kontakizuna

Elkartearen markari buruzko narratiba, elkartearen sorrera, balioak eta helburuak komunikatzeko garaian irizpideak argi edukitzeko.

III PACK

Estreinatutako webgunea

Zure leihora online unibertsora zabaltzen dugu, onepage soil, moderno eta funtzional baten bidez. Online presentzia argi eta funtzionala behar duten elkarteentzat. Pakete honek orri bakarreko webgunea barne hartzen du (onpage), aproposa dena elkartearen beraren, bere egitekoen eta berarekin kolaboratzeko moduaren inguruko informazioa modu antolatuan aurkezteko. Soluzio moderno eta erabilerraza da, Interneteko ikusgarritasuna handitzeko egokia.

One Page Web

Orri bakarreko webgunea, soila baina eraginkorra, elkartearen xedea edo proiektu jakin bat aditzera emateko. Ezin hobea boluntarioak eta dohaintzak biltzeko, elkartekideekin harremanetan jartzeko edo kanpainei buruzko informazioa emateko.

IV PACK

Zure aurkezpen-gutuna

Munduaren aurrean behar bezala ager zaitezen lagunduko dizugu, zure elkartearen ikusizko komunikazioa indartuta. Aurkezpenetan eta inprimaketan irudi profesionala eta sendoa erakutsi nahi duten elkarteentzat. Pakete honek barne hartzen du aurkezpen korporatibo erakargarri bat eta elkartearen ikusizko komunikazioa indartzeko triptiko edo diptiko bat.

Aurkezpen korporatiboa

15-20 orrialdeko aurkezpen bat landuko dugu, eta balioko dizue balizko kideek, inbertitzaileek eta, oro har, Gipuzkoak zuen berri izan dezaten.

Triptikoa edo diptikoa

Urrunago iristen lagunduko dizun eskuorria da, labur azalduko duena zure elkartearen informazio nabarmenena.

V PACK

Ikasi komunikatzen

Emaiozu arrain bat gizon bati eta egun batean zer jan izango du; erakutsi hari arrantzan eta beti izango du zer jan. Txinatar esaera.

Zenbait gako irakatsiko dizkizugu, ongi eta modu koherentean komunikatzeko. Komunitatearekin eta balizko aliatuekin komunikatzeko modua hobetu nahi duten elkarteentzat. Hauek barne hartzen ditu: emailing profesionaleko txantiloia bat, modu eraginkorrean erabiltzeko tutoretzarekin; aurkezpen korporatibo argi eta erakargarri bat eta sare sozialetako tutoretza, mezuaren koherentzia indartzeko.

Emailingerako txantiloien diseinua eta tutoretza

Emailing profesionaleko txantiloia bat sortzea barne hartzen du, baita tutoretza saio bat ere, hura erabili, bidalketak optimizatu eta posta elektronikoko bidezko marketineko jardunbide egokiak aplikatzeari buruzkoa.

Online publizitateko tutoretza

Laguntza pertsonalizatua, estrategiak garatzeko eta kanpaina digitalak indartzeko, publizitate-inbertsioa kudeatzen ikasteko eta Google Ads, Meta Ads eta beste plataforma eta tresna batzuetako emaitzak hobetzeko.

Sare sozialetako tutoretza

Aholkularitza, elkarteak sare sozialei ahalik eta probetxu handiena atera diezaien, pertsona gehiagorengana iritsi, eta inpaktua handitzeko.

EGUTEGIA ETA FASEAK

2025eko urriaren 27an hasiko gara.

IZEN-EMATEA Elkarte interesatu guztientzat zabalik.

Urriaren 27tik azaroaren 27ra

Urriaren 27an irekiko da izena emateko epea. Epe horretan izena eman ahalko du betekizunak betetzen dituen edozein elkarte, gure webgunean eskuragarri dagoen online formularioaren bidez. Ez da kontuan hartuko izen-ematearen ordena; beraz, kontua ez da aurrena izatea, baizik eta formularioa ondo betetzea eta komunikazio-beharrak argitasunez azaltzea.

Laguntzeko, PDF hau prestatu dugu, behar den informazioa adierazita. Zalantzarik baduzu, idatziguzu, eskaera bidali baino lehen.

Fase honetan, nor zaren jakin nahi dugu, zer egiten duzun eta zertan lagundu diezazukegula uste duzun. Ez kezkatu, ez dugu behar txosten orritsurik, bai, ordea, azalpen argi eta zintzoa.

HAUTAKETA Epaimahaiak amaierako proiektuak hautatzen ditu.

Azaroak 28tik abenduaren 11ra

Epaimahaiak —hasitago_kide batek, Gipuzkoako elkartegintzako pertsona batek eta kausa sozialetan engaiatutako gipuzkoar ezagun batek osatuko dute— proiektu eta elkarte guzti-guztiak aztertuko dituzte.

3 elkarte hautatuko dituzte, irizpide hauen arabera: inpaktu soziala, txostenaren edo beharren argitasuna, proiektuaren balioekin bat etortzea eta, jakina, proiektuaren bideragarritasuna, kontuan hartuta epeak eta baliabide erabilgarriak.

Izena ematen duten elkarte guztiek jasoko dute erantzuna, hautatuak izan ala ez.

Gainera, hurrengo edizioetan izena emateko aukera izango dute.

KOMUNIKAZIOA Zuzenean jarriko gara harremanetan hautatutako elkarteekin.

Abenduaren 16a

Fase honek hainbat urrats ditu. Elkarte hautatuekin zehaztuko dira gauzatu beharreko zerbitzuak, egutegia, komunikazio-kanalak eta alderdien arteko konpromisoa. Eta ondoren:

- Hasierako bilera egingo dute agentziak eta elkartek, eta esku hartuko duten taldeek parte hartuko dute (diseinua, sormena, sare sozialak, digitala...). Proiektuaren helburuak sakon aztertu, eta hasi aurreko zalantzak argituko dira.
- Hainbat astez, hasitago_ko taldeak hitzartutako materialen gainean egingo du lan. Hautatutako paketearen arabera luzatuko da aldi hori, baina betiere bermatuta lan-erritmoa errealista dela eta taldearen lan-karga errespetatzen duela.
- Prozesu horretako komunikazioa arina izatea espero da, proiektuaren kalitatea eta egingarritasuna bermatzeko.

EGUTEGIA ETA FASEAK

EXEKUZIOA hasitago_k lanari ekingo dio.

2026

Fase honen helburua da prozesua ebaluatzea, inpaktua neurtzea eta irakaspenak ateratzea.

Feedbackari buruzko galde sorta labur bat bidaliko zaie elkarteei, beraien esperientzia ezagutzeko.

Halaber:

- hasitago_ren webgunean atal boluntario bat eskainiko da, elkarrizketak edo lekukotzak biltzeko, proiektuaren komunikazioan ere erabili litezkeenak.
- Bateragoren hurrengo edizioetan proiektuaren eskala egokitu edo errepikatu daitekeen aztertuko da, ikasitakoari esker, zenbait alderdi hobetuta.
- Aukerarik badago, ondorioen eta emaitza nagusien txosten labur bat emango da.

Garrantzitsua:

Datak egokitu ahal izango dira, zein diren taldearen eta elkarte hautatuen beharrak eta aukerak. Aldaketa guztiak aurretiaz jakinarazi beharko dira eta alderdiek adostu beharko dituzte.

BETEKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Ziurtatu izena emateko bete beharreko guztia betetzen duzula.

Programa honetan parte hartu nahi izanez gero, gutxieneko baldintza jakin batzuk bete behar dira, proiektua bideragarria, baliagarria eta koherentea dela bermatzeko.

01 ONURA PUBLIKOKO ELKARTEA IZATEA

Geure alea jarri nahi dugu gehien behar den horretan. Beraz, prozesu hau irabazi-asmorik gabeko elkarteei soilik zuzenduta dago, ingurunea hobetzen lan egiten duten eta administrazio publikoaren aitortza duten horiei.

02 EGOITZA GIPUZKOAN EDUKITZEA

hasitago_ hemengoa da, Donostiakoa, eta lehen edizio honetan etxekoekin hasi nahi dugu. Ezagutu nahi zaitugu, elkar ikus gaitezen eta inplikazio hurbila izateko.

03 KOMUNIKAZIO BEHAR ARGİ BAT IZATEA

Badakigu ez zaretela espezialista arlo honetan, baina garrantzitsua da argi eduki dezazuen zer behar duen zuen elkarteak: webgune bat? Logotipo bat? Presentzia sare sozialetan? Hori guztia? Zenbat eta argiago eduki, orduan eta hobeki lagunduko dizugu.

04 TALDE-LANEAN ARITZEKO GOGOA

Ez egin ghostingik, faborez. Bateragok funtzionatuko badu, beharrezkoa da zu ere inplikatzeari. Ilusioa, ekina eta komunikazio dosi dezentekoa espero dugu, win-win totala lortzeko.

05 SORTZEN DUGUNA INPLEMENTATZEKO GAITASUNA

Ez dugu nahi logoa Driveko karpeta batean betiko geratzerik. Nahi dugu eduki hori argitaratuta ikusi, brandinga jo eta su lanean. Han-hemen ikusarazteko gaitasuna baduzu, bikain!

OHIKO GALDERAK

Zure galdera guztientzako erantzunak.

Beste zalantzaren bat baduzu, idatziguzu info@hasitago.com helbidera, edo deitu zenbaki honetara: **943 083 646**.

Zer da Baterago proiektua?

Izaera sozialeko proiektu propio bat da, eta horren bidez Gipuzkoako irabazi-asmorik gabeko elkarteei hainbat doako zerbitzu eskaintzen dizkiegu, hala nola brandinga, diseinua, weba, sare sozialak eta beste komunikazio-material batzuk.

Nork parte har dezake?

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek, egoitza Gipuzkoan badute eta onura publikokoak badira, komunitatearen alde jardunez.

Nola har dezaket parte?

Bete ezazu <https://www.hasitago.com/eu/baterago-eu/izen-ematea/> helbideko formularioa, eta emaguzu zure proiektuaren eta beharren berri.

Zenbat elkarte hautatuko dira?

Lehen edizio honetan, 3 elkarterekin egingo dugu lan, baina asmoa da kopuru hori etorkizunean handitzea.

Zer euskarri mota eskaini ditzakegu?

Brandinga, logotipoa, nortasunaren diseinua, web-orriak... Komunikazioari loturiko alderdi guztiak, zure proiektu sozialari indar eta ikusgarritasun handiagoa emateko.

Zenbat ordaindu behar da?

Ezer ez. Baterago proiektua % 100ean da doakoa. Produkzioari loturiko kosturik balego (domeinuak, lizentziak, kanpo-elementuak, etab.), elkarteren kargura izango litzateke.

Nola erabakiko da zein diren hautatuak?

Epaimahaiak —hasitago_kide batek, Gipuzkoako elkartegintzako pertsona batek eta kausa sozialetan engeiatutako gipuzkoar ezagun batek osatuko dute— proiektu eta elkarte guzti-guztiak aztertu, eta elkarteren inpaktu soziala, beharrak eta gure zerbitzuekin eskaini diezaiokegun balio erantsia balioetsiko ditu.

Zenbat irauten dute lanek?

Proiektu guztiak 2026tik aurrera hasiko dira. Proiektu guztiak desberdinak dira epean, baina elkartereekin lan egingo dugu azken produktua ahalik eta lasterren prest edukitzeko.

Gero hasitago_ kontratatu behar da?

Ez, baterago proiektuak ez dakar inolako konpromiso erantsirik; hautatutako zerbitzu osoa emateko asmoz sortu dugu, geroan jarraipena izatera inor derrigortu gabe.

OHIKO GALDERAK

Non adierazi ditzaket zalantzak?

Idatzi **info@hasitago.com** helbidera, edo deitu **943 083 646** zenbakira.

Beharrezkoa da lehendik ikusizko nortasuna izatea?

Ez, halakorik ez baduzu, hutsetik sortzen lagunduko dizugu.

Elkarte oso txikia izanda ere parte hartu dezakegu?

Noski, elkarte handiekin eta txikiekin lan egiten dugu.

Zer espero dugu zuengandik?

Gure lana ondo egiteko, beharrezkoa zaigu informazioa emateko prest egon zaitezten, erabaki batzuk batera har ditzagun eta feedbacka eman diezaguzuen.



NOR GARA?

Pertsonena,
pertonentzat.
Ezagutu nahi
zaituztegu, eta zuek
gu ezagutzea.

hasitago_ diziplina anitzetako 16 pertsonen osatutako taldea da, egitura horizontalekoa eta hierarkiarik gabea. Erabaki garrantzitsuenak batera hartzen dira, elkarriketaren eta elkarlanaren ahalmenean sinesten dugulako.

Antolaketa modu horri esker, lan-ingurune garden, arin eta gizatiarra da gurea; ideiak guztiek axola dute, ahots orok onura dakar. Askotariko sektoreekin aritzen gara elkarlanean, hala nola industria, hezkuntza, kultura, erakunde publiko eta marka pribatuekin, eta uste bera dugu guztiek ere: komunikazioak botere eraldatzailea du.

Horregatik, gure bezeroentzat lan egiteaz gain, guztion ongiari ekarpena egiten dioten horiei lagundu nahi diegu, alegia, pertsonen, gure ingurunearen eta Gipuzkoaren alde egiten duten elkarteei eta proiektuei.

hasitago_ren DNAk berezkoa du gizarte-erantzukizuna.

Enpresen arrakasta eta gizartearentzako eragin positiboa eskutik helduta joan behar direla uste dugu. Hori dela eta, jardunbide etiko eta jasangarriak sustatzen ditugu, lan-ingurune inklusiboa bultzatzen dugu eta pertsonen bizitza hobetzen duten ekimenei laguntza ematen diegu.

Hala egiten dugu aurrera, modu koherente, etiko eta konprometituan, etorkizun hobe bat lortzeko guztientzat.

AGENTZIA ZENBAKITAN

400 proiektu baino gehiago orain arteko bidean.

10 urte baino gehiagoko esperientzia komunikazioaren eta publizitatearen sektorean.

Gehiago... Zenbakiak baino askoz ere gehiago. Talde bat baino gehiago. **16 pertsona**, proiektu bakoitzaren zerbitzura bihotz osoa eta ezaguera guztia jartzen dituztenak. Orain, zuen zerbitzura.

go

TALDEA

Nor dago horren guztiaren atzean?

Ezagutu gure taldea.




Diego Polo
Koordinatzailea



Aitor Etxebarria
Sormen-zuzendaria



Mar Arregi
Arte-zuzendaria



Gorka Azpíroz
Diseinua eta animazioa




Mariau Angulo
Web-garatzaila




Silvia Solas
Marka identitatea
eta diseinua



Jon Calvo
3Dko infografien
egilea



**Eneko Ortiz de
Zarate**
Web-garatzaila




Irune Arbide
UX/UI diseinatzaila



Gabriel Sanz
SEOa eta edukiak



Belén Iglesias
UX/UI diseinatzaila



Unai Curiel
Paid Media eta CRM
managerra



Yoana Salvador
Diseinatzaile
grafikoa



Ana Lluch
Marka-estrategia



Haizea Alustiza
Sormen-copya



Miren Gorriti
Administrazioa

hasitago_

AGENCIA DE COMUNICACIÓN

info@hasitago.com

T. 943 083 646